# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 862

*EBAZPENA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2014-2015 ikasturtean Eskolatze Osagarriko Programak garatzeko diru-laguntzak emateko dena.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko irailaren 24ko Aginduaren bidez, 2014-2015 ikasturtean Eskolatze Osagarriko Programak garatzeko diru-laguntzetarako deia egin zen.

Eskabideen espedienteak aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– I. eranskinean adierazten diren erakundeei diru-laguntzak ematea. Eranskinean bertan zehazten dira zenbatekoak.

2. artikulua.– II. eranskinean adierazten da diru-laguntzarako eskubiderik ez duten entitateak zeintzuk diren eta diru-laguntza zergatik ez zaien ematen.

3. artikulua.– Diru-laguntza bi alditan ordainduko da:

a) Lehen ordainketa, emandako diru-laguntzaren % 20, behin 16.a) artikuluan seinalatutako epea igarota eta berariazko uko egitea bitarteko izan gabe.

b) Bigarren ordainketa, emandako diru-laguntzaren % 80a, bitarteko txosten bat aurkeztu ondoren egingo da. Txosten horretan jasoko da proiektuaren ordura arteko garapena zein izan den, eta ikasle bakoitzaren banan-banako aurrerabidea ere bai. Txosten hori 2015eko apirilaren 1etik 30era bitartean aurkeztu beharko da.

4. artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 30a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

I. ERANSKINA

| Entitateak | Lurraldea | Puntuak | Diru-laguntza |
|---|---|---|---|
| CPES Otxarkoaga BHIP | Bizkaia | 9,5 | 229.036 |
| CIP Meatzaldeko Behargintza LHIK | Bizkaia | 9,4 | 57.259 |
| Peñascal kooperatiba elkartea | Bizkaia | 9,3 | 171.777 |
| CPES San Miguel - Elizaran Fundazioa BHIP | Gipuzkoa | 9 | 57.259 |
| CPEPS San Viator (Sopuerta) LBHIP | Bizkaia | 9 | 57.259 |
| CPES Egibide BHIP | Araba | 9 | 57.259 |
| CPES Sta Maria (Portugalete) BHIP | Bizkaia | 8,9 | 57.259 |
| ADSIS Fundazioa | Gipuzkoa | 8,9 | 57.259 |
| CPES M.ª Inmaculada (Bilbao) BHIP | Bizkaia | 8,5 | 57.259 |
| Mendibil elkarte pedagogikoa | Gipuzkoa | 8,5 | 57.259 |
| Deba Garaiko Mankomunitatea | Gipuzkoa | 8,5 | 57.259 |
| María Rivier Fundazioa | Gipuzkoa | 8,5 | 57.259 |
| Urola Garaia Fundazioa | Gipuzkoa | 8,2 | 57.259 |
| CPEE Ortzadar HBIP | Gipuzkoa | 8,2 | 57.259 |
| Errenteriako Udala | Gipuzkoa | 8 | 57.259 |
| CPES Nuestra Sra de Begoña (Barakaldo) BHIP | Bizkaia | 8 | 57.259 |

II. ERANSKINA

| Entitateak | Lurraldea | Arrazoia |
|---|---|---|
| Fundación de trabajadores de la siderurgia integral | Bizkaia | Diru-laguntza emateko gutxieneko puntuazioa ez lortzea. 12.3 artikulua. |